

Erf.: Industrialde barrirako sarbidea egiteko okupazioaren hitzarmena
Espediente zk.: 15/08

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Industrialde barrirako sarbidea egiteko okupatu zan lur zatia eskuratzeko hitzarmena hasikeraz onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Bakarra: 2015eko otsailaren 13an izandako Urigintza batzordean, gaiaren inguruko diktamena emon da.

b) Oinarri juridikoak

Bakarra: Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 7. Xedapen Gehigarriak, Urigintz Hitzarmenei buruzko arauak finkatzen dauz eta, holan egiten dau:

1. Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki-entitatek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko. Pertsonok ez dute zertan izan kasuan kasuko lursailen jabe.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako hirigintza-hitzarmenak negoziatu, sinatu eta betetzeko orduan, legezketasun-, gardentasun- eta publizitate-printzipioei jarraitu beharko zaie.

3. Hirigintza-hitzarmenak era honetakoak izan daitezke, beren xedearen arabera:

a) Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak: indarrean den plangintzan zer aldaketa eta nolako edukiarekin egin daitezkeen zehaztea izango dute xede.

b) Hirigintza-egikaritzeko hitzarmenak: hitzarmena egiteko unean indarrean den plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko izango diren zehaztapenak eta baldintzak izango dituzte xede.

4. Erabat deusezak izango dira hirigintza-hitzarmenen klausulak, baldin eta legeen edo erregelamenduen aginduzko arauak, lurraldearen edo hirigintzaren plangintzari buruzkoak barne, era batera edo bestera objektiboki hausten badituzte, haien kontrakoak badira edo haiei iruzur egiten badiete.

5. Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenei dagokienez, plangintza egiteko ahalmen osoa gordeko du beti udalak, interes publikoko arrazoiengatik. Plangintza-aldaketak behin betiko onespenez ez badu, besterik gabe suntsituzat joko da hitzarmena.

6. Hirigintza-hitzarmenek izaera juridiko-administratiboa edukiko dute ondorio guztietarako. Akordioa bete-betean dagoela iritzio zaio eskaintza egin eta hitzarmenaren gaia onartzen denean, nahiz eta gainerako baldintza formalak ere bete beharrekoak izango diren.

7. Erkidegoari kasuan kasuko hirigintza-eraikigarritasuna lagatzeko legezko eginbeharra, betiere salbuespenezko kasuetan eta lege honetan aurreikusitako eran, diruz ordainduta betetzea xedatzen duten hitzarmenek, edo ondasunen eskualdaketak edo trukeak xedatzen dituzten hitzarmenek, dagokien perito-balorazioa jaso beharko dute, udalaren zerbitzu teknikoek eginda edo berretsita.

8. Udalari dagokio hirigintza-hitzarmenak onartzea. Horretarako, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da lehenago osorik, eta jendeaurrean jarriko da, gutxienez 20 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

9. Autonomia Erkidegoko udalari guztietan, hirigintza-hitzarmenen erregistro bat eta artxibo administratibo bat izango dira. Haietan, hitzarmenen idazpena egingo da, eta hitzarmenen behin betiko testuaren eta, halakorik badute, hitzarmenari erantsitako agirien ale oso bat gordeko da. Udal-erregistroaren arduradunak emandako egiaztagiria bakarrik sinestamenduko du, lege-ondorio guztietarako, hitzarmenen edukia, eta Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango da egiaztagiri hori.

10. Pertsona orok izango du artikulua honetan aipatutako erregistroak eta artxiboak kontsultatzeko eskubidea, eta orobat erregistro horietan egindako idazpenen edo artxibo horietan gordetako agirien ziurtagiriak eta kopiak lortzeko eskubidea ere”.

Hori dala eta, hitzarmena behin betiko onartuzat emoteko, 20 eguneko jendaurrea zabaldu beharko da. Alegazinerik aurkeztuko ez balitz, epe hori igarota, hitzarmena behin betiko onartuzat emongo litzateke eta, alegazinerik egon ezker, aldiz, alegazino horreek aztertu eta erantzuten dauan behin betiko onarpena egin beharko litzateke.

Bestalde, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 47.1 eta 47.2.ii) artikulua jarraiki, hitzarmena onartzeko beharrezko gehiengo, gehiengo soil da.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015eko martxoaren 4an

Karmele Muñoa Arrigain
Jarduneko Idazkaria